
Hitzaurrea



PAUL BILBAO SARRIA

Euskararen Gizarte Erakundeek Kontseiluak udalen hizkuntza-politikaren bigarren azterketa burutu berri du. 2006an aurkeztu zuen lehen aldiz udalen hizkuntza-politiken neurketa; hain zuzen ere, 2.000.000 herritarri eragiten dieten 66 udalerriren hizkuntza-politikak. Horrela, lau urte geroago politika horiek berrikusteko garaia iritsi dela uste izan du Kontseiluak; izan ere, denbora-tarte horretan Udalak osatu dituzten indar politikoek aukera izan dute hizkuntza-politika eragingarria abiatzeko. Unea da beraz, azken legealdiak zer eman duen jakiteko.

Hainbatetan entzuten dugu gure herrian hizkuntza-politika progresiboak behar ditugula. Tamalez, *progresibotasun* terminoaren atzean helburu eta epe zehatzik gabeko hizkuntza-politika ezkutatu da. Urteek aurrera egin arren, kasu askotan hizkuntza-politikei ez zaizkie neurri zuzentzaileak txertatu eta arrakastarik izan ez duten politikekin jarraitzen dute administrazioek. Normalizazio prozesuak definizioz dira progresiboak, baina, ez dago progresibotasuna ebaluatzerik helburuak eta epe zehatzak definitu ezean.

Hortaz, azterketa berri honek aukera emango digu, besteak beste, lau urtetan hizkuntza-politikek emandakoa neurtu ahal izateko, eta beraz, aurrera begira normalizaziorako bidean eman beharreko urratsak hobeki zehazteko.

Prozedura zorrotza baliatu du Kontseiluak beste behin. Udalak hartutako erabakiak, esleitutako baliabideak eta horien emaitzak aztertzeaz gain, herritarrek euskarazko zerbitzua jasotzeko eta langileek euskaraz lan egiteko eskubideen bermea zein neurritaraino dagoen eta nola gauzatzen den neurtu da, eta guztia irudiz zein grabazioz hornitu du. Finean, herritarrei eragiten diete udalen hizkuntza-politiken ondorioek. Horrela, hizkuntza-politika bat ezaugarritzen duten hiru zutabeak izan ditugu aztergai: corpus juridikoa, plangintzak eta diru-baliabideak.

Lanaren dimentsioaz ohartzeko interesgarria da jakitea, besteak beste, galderei emandako 9.000 erantzun aztertu direla, ehunka agiri eta dokumentu jaso direla edota 2.000 argazki baino gehiago bildu direla datuen testigantza gisa, bai eta 198 telefono-grabazio ere.

Tresna zorrotza bezain eraginkorra dugu udalen hizkuntza-politikaren bigarren neurketa, eta ahalik eta etekin handiena ateratzea da hemendik aurrerako erronka nagusia. Izan ere, neurketok udal-agintarien esku geratuko dira orain, eta udaletan hizkuntza-politika eragingarria abian jartzeko gakoak izango dituzte. Aitzakiarik ez, beraz, euskaldunon eskubideen bermeari eta gure hizkuntzaren normalizazioari ekin nahi bazaio.

Herrietako euskalgintzarentzako tresna ere izan nahi du neurketak; aldaketa posible den herrietan elementu lorgarriak erdiesteko dinamikak abian jartzeko aukerak eskaintzen dutelako herriz herri ateratako ondorioek, eta dinamika horietan euskalgintzak hartu behar du gidaritzza.

Hala ere, jakin dakigu askotan herritarrok ere eragile bihurtu behar dugula tokiko administrazioetan hizkuntza-politika aldarazteko. Zalantzarik ez udaletako agintarientzat tresna erabilgarria dela neurketa, baina bai eta herritarrarentzat ere. Azken boladan instituzioei begira denbora luzeegi egon garela ohartu gara, eta gauzak aldatuko badira, aldagetak gauzatzeko, norbanako-multzo zabal baten babesa eta bultzada behar dugu. Euskaraz bizitzeko nahiari determinazioz eutsi behar diogu, eta sentimendu hori kanporatzen dugun milaka herritarrok bat egitean, hizkuntza-politika eragingarria abian jar dezaten eragiteko gaitasuna dugula ohartuko gara.

Euskal Herrian, 201ko otsailaren 2an

Rankinak

RANKIN OROKORRA

Udalerrien hizkuntza-politikaren sailkapena da honako hau. Udalerrri bakoitzak lortutako puntuen arabera sortutako sailkapena. 10 arteko notak jarri dira erantzunen azterketa egin ondotik. 0 puntu izateak hizkuntza-politikak euskarari inolako tarterik ez diola eskaintzen adierazi nahi du eta 10 puntuek euskara hutsezko funtzionamendua definitzen du. 7 puntu eskuratzeak adierazten du euskara lehenesteko udalak egiten duen ahalegina. Izan ere, haztapenak erakutsiko ligukeen moduan, muga horretatik gora koka liteke euskara lehenesteko politika sistematikoa (ez bada nota lortuta ere, neurri eta erabakiren batean huts egiten duela).

Ikuspegi orokorra ematearren zerrenda batera ekarri ditugu herriak, zenbait datu lagungarriren ondoan. Taulako ezagutzaren zutabeen aurkituko dugun kopuruari dagokionez, irakurlearen informaziorako, jakin euskaldunak eta ia euskaldunak hartu ditugula kontuan. Edozein kasutan, prozeduran zehar eginiko kontrasteek eskaintzen dioten fidagarritasuna osoa bada ere, zuhur jokatzeko aldera herri bakoitzaren notari errektore bat ezarri behar zaio +0,2 -0,2 tartea eskainiz.

RANKINA	HERRIA	NOTA	KALIFIKAZIOA	ALDERDIA	EZAGUTZA TASA	EREMU JURIDIKOA
1	BERMEO	9,3209	OSO ONGI	EAJ	90,6	Ofizala
2	ORIO	8,7745	OSO ONGI	EAJ	92,4	Ofizala
3	AZPEITIA	8,6925	OSO ONGI	EAJ	94,8	Ofizala
4	LEKEITIO	8,6387	OSO ONGI	EAJ	96,1	Ofizala
5	OÑATI	8,413	OSO ONGI	EAJ	90,1	Ofizala
6	ZARAUTZ	8,2457	OSO ONGI	Hamaikabat	86,4	Ofizala
7	ONDARROA	8,1692	OSO ONGI	EAJ	98	Ofizala
8	BEASAIN	8,1	OSO ONGI	EAJ	77	Ofizala
9	ARRASATE	8,0219	OSO ONGI	EAE-ANV	73,6	Ofizala
10	BERGARA	7,8981	ONGI	EAE-ANV	84,4	Ofizala
11	AZKOITIA	7,872	ONGI	EAJ	90,7	Ofizala
12	GERNIKA-LUMO	7,8307	ONGI	EA	86,6	Ofizala
13	TOLOSA	7,4127	ONGI	EAJ	85,3	Ofizala
14	HERNANI	7,3978	ONGI	EAE-ANV	74	Ofizala
15	SORALUZE	7,1732	ONGI	EAE-ANV	76,7	Ofizala
16	HONDARRIBIA	7,1253	ONGI	EAJ	78,9	Ofizala
17	ELGOIBAR	6,9456	EZ NAHIKO	EAJ	73,8	Ofizala

18	LESAKA	6,8786	EZ NAHIKO	EAJ	93,3	Ofizala
19	DONOSTIA	6,4666	EZ NAHIKO	PSE-EE	63	Ofizala
20	PASAIA	6,3909	EZ NAHIKO	EAE-ANV	56,9	Ofizala
21	ORDIZIA	6,3002	EZ NAHIKO	EAJ	78,3	Ofizala
22	AMURRIO	6,1119	EZ NAHIKO	EA	46,1	Ofizala
23	EIBAR	5,9877	EZ NAHIKO	PSE-EE	71,3	Ofizala
24	MUNGIA	5,9652	EZ NAHIKO	EAJ	76,2	Ofizala
25	IRUN	5,8949	EZ NAHIKO	PSE-EE	50,7	Ofizala
26	DURANGO	5,7073	EZ NAHIKO	EAJ	72,1	Ofizala
27	LASARTE-ORIA	5,6128	EZ NAHIKO	PSE-EE	62	Ofizala
28	ZUMARRAGA	5,5744	EZ NAHIKO	PSE-EE	61,7	Ofizala
29	GALDAKAO	5,2856	EZ NAHIKO	EAJ	60	Ofizala
30	AGURAIN	5,2296	EZ NAHIKO	AGA	45,5	Ofizala
31	ALTSASU	5,0251	EZ NAHIKO	Nabai	44,3	Ofizala
32	ERRENTERIA	5,0147	EZ NAHIKO	PSE-EE	52,9	Ofizala
33	ZORNOTZA	4,8976	ESKAS	EAJ	74,7	Ofizala
34	ARRIGORRIAGA	4,7497	ESKAS	EAJ	41	Ofizala
35	ERMUA	4,6555	ESKAS	PSE-EE	49,1	Ofizala
36	ZALLA	4,5146	ESKAS	EAJ	39,2	Ofizala
37	ERANDIO	4,4493	ESKAS	EAJ	46,1	Ofizala
38	BERRIOZAR	4,4274	ESKAS	Nabai	19,4	Mistoa
39	LAUDIO	4,3537	ESKAS	EAJ	49,1	Ofizala
40	BAZTAN	4,0782	ESKAS	Nabai	91,4	Ofizala
41	GASTEIZ	4,0502	ESKAS	PSE-EE	40,9	Ofizala
42	BARAÑAIN	3,927	ESKAS	UPN	20,3	Mistoa
43	BILBO	3,9039	ESKAS	EAJ	42,1	Ofizala
44	GARES	3,6817	ESKAS	Agrupación puentesina	14,7	Mistoa
45	BASAURI	3,5844	ESKAS	PSE-EE	43,7	Ofizala
46	SANTURTZI	3,4273	ESKAS	EAJ	37,4	Ofizala
47	SESTAO	3,3218	ESKAS	PSE-EE	45,6	Ofizala
48	BURLATA	3,2256	ESKAS	PSN	23,5	Mistoa
49	ATARRABIA	3,1827	ESKAS	Nabai	27,4	Mistoa
50	ZIZUR NAGUSIA	3,0063	ESKAS	Nabai	25,4	Mistoa
51	AGOITZ	2,5629	ESKAS	A I Aoiz	28,6	Mistoa
52	TRAPAGARAN	2,1643	ESKAS	PSE-EE	39,5	Ofizala
53	OION	2,0838	ESKAS	EAJ	27,7	Ofizala
54	BIARRITZ	2,0534	ESKAS	Modem		Ez ofizala
55	IRUÑEA	1,9561	ESKAS	UPN	19,3	Mistoa
56	BAIONA	1,8594	ESKAS	UMP		Ez ofizala
57	TAFALLA	1,817	ESKAS	UPN	16,5	Ez ofizala
58	BARAKALDO	1,7697	ESKAS	PSE-EE	34,4	Ofizala
59	DONIBANE LOHITZUNE	1,7186	ESKAS	UMP		Ez ofizala
60	PORTUGALETE	1,7072	ESKAS	PSE-EE	38,6	Ofizala
61	ATHARRATZE	1,3881	ESKAS			Ez ofizala
62	LIZARRA	1,3273	ESKAS	UPN	21,3	Mistoa
63	HAZPARNE	1,3208	ESKAS	Nouveau centre		Ez ofizala
64	ZANGOZA	0,3952	ESKAS	AISS	8,99	Ez ofizala
65	ANGELU	0,0605	ESKAS	PSF		Ez ofizala
66	TUTERA	0	ESKAS	UPN	3,5	Ez ofizala

GAINDITZEN DUTENAK

- 66tik 16k baino ez du gainditzen. Alegia, 50 udalek suspenditzen dute.
- “Oso ongi” atera dutenak 10 dira: 3 Bizkaian eta 6 gipuzkoan, guztiak ere eremu ofizialean. Denek %70eko ezagutza tasa gainditzen dute. 7 EAJren udalak dira, 1 ANVrena eta 1 Hamaikabatena.
- “Ongi” atera dutenak 7 udal dira. 6 gipuzkoarrak, bat bizkaitarra. Guztiak ere eremu ofizialekoak eta guztiak %70eko ezagutza tasa gainditzen dute. 3 udal ANV-k kudeatzen ditu, 2 EAJk eta 1 Eak.
- Herri hauek guztiak alderdi abertzaleek kudeatutakoak dira.
- 218.088 biztanlerengan baino ez dute eraginik politik egoki hauek. Honek esan nahi du aztertutako herrietan 1.893.826 herritar hizkuntza-politika desegokien ondorioak pairatzen dituztela egunero-egunero.

EZ NAHIKOA DIRENAK

- 16 udalerrri dago 5-7 puntuazio artean.
- Denak eremu ofizialekoak dira: 9 Gipuzkoan, 3 Bizkaian, 2 Nafarroan eta 2 Araban.
- Ezagutza tasak %93,3 (Lesaka) eta %44,3 (Altsasu) artekoak dira.
- Alderdiei dagokionez, 6 EAJk kudeatutakoak dira, 6 PSEk, 1AGAK, 1ANVk, 1Eak eta 1 NaBaik. Alegia, eskuineko alderdi ez abertzalerik ez dago.

ESKAS ATERA DUTENAK

- 34 herri dira, erdia baino gehiago. 1.427.504 biztanlek pairatzen dituzte oso politika desegokien ondorioak: 13 Nafarroan, 12 Bizkaian, 5 Lapurdin, 3 Araban eta 1 Zuberoan.
- Tuter da hizkuntza-politika desegokiena duen udala, 0 puntu ditu aurrez berriz ere. Berriozarren ofiziala ez direnen artean puntuaziorik altuena du, 4,42ko notarekin.
- Bereziki deigarria da eremu ofizialeko herriak azken postuetan ikustea:

HERRIA	RANKINA	NOTA	ALDERDIA	BIZTANLEAK
BASAURI	45	3,58	PSE	44.052
SANTURTZI	46	3,42	EAJ	47.155
SESTAO	47	3,32	PSE	30.350
BARAKALDO	58	1,76	PSE	95.260
PORTUGALETE	60	1,70	PSE	49.788

- Portugaletek soilik 1,7ko puntuazioa izatea deigarria da. Bere aurretik estatus ez ofizialeko 12 udal ditu.
 - 5 herri hauek 266.605 herritar barnebiltzen ditu.
- EA, EAE-ANV eta Hamaikabat alderdiak kenduta, gainerako alderdi guztiek dituzte hizkuntza-politika eskasa indarrean duten udalen ardura: 8 EAJ, 7 PSE, 5 UPN, 4 NaBai, 2 UMP, 1 Agrupación Puentesina, 1 AIAoiz, 1 AISS, 1 Nouveau Centre eta 1 PSF.

HIRIBURUAK

- 1.000.221 herritar barnebiltzen dituzte aztertutako hiriburuek: Baiona, Bilbo, Donostia, Gasteiz eta Iruñea.
- Bakar batek ere ez du gainditzen.
- Baiona (1,85) eta Iruñea (1,95) dira hizkuntza-politika makurrena dutenak, UMP eta UPNren eskutan hurrenez hurren.
- Eremu ofizialekoak diren hiriburuen artean Bilbok (3,90) eta Gasteizek (4,05) hizkuntza-politika eskasak dituzte.
- Eremu ofizialeko hiriburuen artean PSErenak direnak EAJrena dena gainditzen dute.